262. zk.
Bigarren aroa
Urriak 1
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Txingudi Beer Week.
7. orrialdea

Kirolak
Txingudi Korrika
9. orrialdea

Maila bikainean hasi da Bidasoa

3 Erreportajea: Dantza Hirian.
4 Elkarrizketa: Iñigo Villamia "Desde nueve metros" saioaren aurkezlea.
5 Erreportajea: Adour-Bidasoa margo lehiaketa.
6 Erreportajea: Mugikortasunaren astea.
11. Haurren lanak Txingudi Ikastola. 6. maila.
12 Gazteen lanak Txingudi Ikastola BHI 3. maila. Beñat Oiartzun.
13 Gaztea Eskola Kirola programa
14 Gazte infor
15 Agenda

T & T Hizkuntzak

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzat alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
-Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 52 59
academiatyt@gmail.com

Argazki lehiaketa

Junkal Ruiz de Apodaka.
Zabaltza enparantzan The Big Band Theory entzuten.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Gudari kalea

IUA: 12379

Gudari kalea Mendibilen dago. Juan Albisu kalean hasten da, eta kale horren amaieran dagoen biribilgunean bukatu.

Lehenago beste izen batzuk izan zituen. *"Ronda del tercio extranjero"* kalea izan zen 1924. urtean. Ondoren, *"Paseo del ejército Español"* izena jarri zioten. 1979ko irailaren 6ko Osoko Bilkuran Gudari Kalea izena eman zioten.

Argi dago hitzaren euskarazko esanahia zein den. 1936-39ko Gerra Zibilean erabili zuten gehien bat. Hasieran, bolondres nazionalistak izendatzen zituen, eta Eusko Gudarosteko kideak ondoren. Errepublikaren garaiko Eusko Jaurlaritzaren Egunkari Ofizialak gudari izena gaztelaniaz euskal miliziano itzultzen zuen.

Demokrazia heldu ondoren, gerra krudel hartan bizitza galdu zuten gudariei omenaldi ugari egin izan zaizkie, frankismoaren garaian ofizialki ahazturik egon eta gero.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Hamargarrenez izan da Dantza Hirian Irunen

Irailaren 19an egin dute emanaldia, epaitegiaren aurreko plazan

Jaialdi ibiltaria da Dantza Hirian. Baina bere edizio guztietan gelditu da Irunen. Hiriarentzat "pribilegioa" izan dela adierazi du Juncal Eizagirre udaleko Kultura ordezkariak. Aurten hamar urte bete ditu festibalak, eta irailaren 19an iritsi da Bidasoaren ertzera. Dantza garaikideko hiru ikuskizun eta haurrei zuzendutako tailerra izan dira José Ramón Amunarriz plazan, Justizia Jauregiaren aurrean. Hamarnaka ikusle bildu dira kaleko ikuskizunaz gozatzeko

Haurrak eta haien gurasoak izan dira lehenak epaitegiaren aurreko plazara hurbiltzen. Marrazketa eta dantza tailerra eskaini diete Dantza Hirian jaialdiko kideek. Ordu betez aritu dira, giro atseginean. 18:30ean, Paula Quintanaren inguruan bildu dira ikusle guztiak, lurrean eserita edo zutik, emanaldiaz gozatzeko prest. Bakarka aritu da Tenerifeko dantzari txikia, musikaren ezinbesteko laguntzarekin. Dantza klasikoa, garaikidea eta flamenkoa uztartu ditu, *Latente* obrako Sueño 3 koreografian. Bizitza errepikakorra dela azaldu nahi izan du bere gorputzaren mugimenduekin. Leioako Umore Azokako artista gaztearen saria jaso du aurten Quintanaren lanak.

Buelta eman behar izan dute gero ikusleek, plazaren beste aldean aritu baitira hurrengo dantzariak. Zeharo aldatu dira musika eta giroa, Alberto eta Marcos Pardo anaiak dantzan hasi direnean. The Circle of Trust break dance taldeko kideak dira, Zaragozako hip-hop eszenan ezagunak. *Nexus* izeneko lana eskaini dute, anaien arteko harremana irudikatzea helburu. Bilboko Krego-Martin konpainiako bikoteak hartu du lekukoa, ikuskizunari amaiera emateko. Bi lagunek berriro elkar topatzen dutenean sor daitezkeen erreakzioen inguruan osatu dute *To be continued* koreografia. Artistek txalo zaparradak jaso badituzte ere, emanaldien maila azpimarratu nahi izan du Myriam Arkaia jaialdiaren antolatzaileak: "Artista profesionalak dira, dantza garaikidearen munduan ezagunak, estatuan eta mundu mailan".

> "Artista profesionalak dira, dantza garaikidearen munduan ezagunak, estatuan eta mundu mailan"
>
> Myriam Arkaia

Dantza garaikidea zabaltzea helburu

Hamargarren aldiz iritsi da Dantza Hirian Irunera. 2006an sortu zen, Baiona-Donostia Eurohirian dantza garaikideko emanaldiak eskaintzeko asmoz. Hamarkada osoan, 92 ikuskizun izan dira, 187 hiri-eszenatoki ezberdinetan. Urrutiko konpainiek parte hartu dute, baina bertakoek ere bai. 38 EAEko konpainiak izan dira eta 5 Akitaniakoak. Kaleko jaialdia da, eta eszenatokiaren inguruko arkitekturarekin lotura sortzea bilatzen du. Arkitekturarekin, eta ikusleekin ere bai, noski. "Dantza garaikidea hiritarrari hurbiltzea da asmoa. Gizarte kohesiorako tresna izan daitekeela uste dugu", aipatu du Myriam Arkaiak. Europa mailako artisten topagune eta erreferente izatea lortu du Dantza Hirian-ek. Gainera, nazioarteko beste jaialdiekin harremanean aritu da, CQB-Ciudades Que Bailan proiektuaren bidez.

> "Dantza garaikidea hiritarrari hurbiltzea da asmoa"
>
> Myriam Arkaia

Beste jarduera paraleloak ere baditu Dantza Hirian proiektuak. Aterpean eta Ibili ekimenen bidez, Aquitaniako eta EAEko dantza konpainiei laguntza ematen die. Aterpean-ek babes ekonomikoa eta sorkuntzarako espazioa eskaintzen die. Ibili-k konpainiek sortutako lanak zabaltzea du helburu. Horretarako, emanaldiak antolatzeaz gainera, sentsibilizazio ekintzak ere prestatzen ditu, konpainien eta publikoaren arteko harremana indartzeko: entsegu irekiak, topaketak edo tailerrak. Eurohiriko dantza garaikidearekiko konpromiso sendoa du Dantza Hirian proiektuak.

Olaizola Immobiliaria agentzia

- Salmenta-Alokairuak
- Promozio berriak
- Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Bidasoa hurbiletik jarraituz

Irungo eskubaloi taldearen gaurkotasuna aztertzen du astero txingudionline.com-eko "Desde nueve metros" saioak

Bidasoaren zalegoak eskubaloiari buruz asko dakiela esan ohi dute. Irun eta eskubaloia elkartuta egon izan dira luzaroan, Bidasoa Irun taldeari esker. Gaur egun, Ohorezko B Mailan ari den arren, zale irundarrak Artalekura erakartzen ari da berriro. Duela hiru urte, "Desde nueve metros" programa aurkezten hasi zen Iñigo Villamía, txingudionline.com hedabide digitalean. Eskubaloiari eta Bidasoari buruzko saioa da.

Pedro Salcedo eta Iñigo Villamia Sirimiri tabernako terrazan, programa grabatu ondoren.

Zer da "Desde nueve metros" eta zein bilakaera izan du?

Bidasoa Irun taldearen inguruko gaurkotasuna aztertzen dugu, gehien bat. Bidasoako jokalari asko ezagutarazten ditugu, gainera. Hiru urte daramatzagu, eta hobetuz ari gara pixkanaka. Aurten kalitate jauzia eman dugu, eta gero eta jende gehiagok ikusten du saioa. Irungo ikusleak bakarrik ez, probintziakoak eta estatuko beste lekuetakoak ere baditugu. Kontuan hartu gure taldeari dagokiona aztertzen dugula, baina ligaren egoera orokorraz ere hitz egiten dugula.

Aurten oso ondo hasi da Bidasoa Irun.

Programa egin genuen lehen urtean, Bidasoa Asobal Ligan aritu zen. Partida baino bi edo hiru egun beranduago grabatzen genuen, eta hotzean aztertzen saiatzen ginen arren, lan zaila zen, egia esan. Aurtengoa ezberdina da. Hasieratik genekien zein kategorian ariko ginen, eta denbora askorekin osatu dute taldea. Jokalari guztiek eman dezakete mailan handia, ez dago zazpiko titular bat, eta ordezko beste bat. Uste dut azken urteotako denboraldi onenetakoa izan daitekeela.

Komunikazioa ikasi duzu Deustuko Unibertsitatean, eta eskubaloiaren munduan ere bazabiltza. Bidasoaren harrobian hasi zinen, lehen taldean debuta egin zenuen, eta orain Ereintzan ari zara.

Arlo pertsonalari balio handia ematen dion taldea da Ereintza. Bidasoak egin ez zuen ahalegin ekonomikoa burutu du. Asko eskertzen diet, gehien gustatzen zaidana egiten jarraitzeko aukera eman didatelako. Bidasoaren inguruko kronikekin eta saioarekin uztartzen dut eskubaloia.

Jende askok parte hartu izan du saioan, baina Pedro Salcedo kolaboratzaile finkoa da, ezta?

Eskubaloia ondo ezagutzen duen pertsona da Pedro. Bidasoari lotuta eman du bizitza osoa. Gainera, kamera gustuko du, eta hori abantaila da saioa egiterakoan. Azken urteotan denetarik izan da: zaleak, kazetariak, zuzendaritzako kideak, presidentea, jokalariak etab. Denen iritziak biltzen ahalegintzen gara. Jokalariak beti partidaz partida joaten saiatzen dira, baina ni, kazetari moduan, pixka bat urrutiago begiratzen ahalegintzen naiz.

Zer esango zenieke saioa ezagutzen ez dutenei?

Ondo pasa dezaketela uste dut. Jokalari askorekin harremana izan dut, eta atsegina izaten da solasaldia. Fitxaketa berriak etortzen direnean, tonu serioagoa izaten du, baina jokalari horiek ezagutzeko aukera ematen du. Saioa txingudionline.com-en eta Txingudi Online-en Youtube kontuan ikus daiteke. Astearte gauetan egoten da ikusgai. Uste dut ondo ari garela, eta pixkanaka hobetuz joango garela.

Uzta aberatsa eman du Adour-Bidasoa lehiaketak

Amaia KZko erakusketa aretoan ikus daitezke epaimahaiko kideek aukeratutako lanak

Arte erakusketa anitza hartu du Amaia KZk. Estilo eta teknika ezberdinetako margolanak ikus daitezke erakusketa aretoan. Figuratiboak, abstraktuak, eta abangoardiako lan modernoak. Adour-Bidasoa Margo Lehiaketako lanak dira, epaimahaiko kideek hautaturikoak. Urriaren I Ira arte egongo dira Amaian. 24.edizioa bete du aurten Irungo Udalak antolatzen duen Adour-Bidasoa lehiaketak.

Sari banaketa bitxia izan da 2015eko Adour-Bidasoarena. Finalistak, beste parte hartzaileak, epaimahaiko kideak, senideak, politikariak, kazetariak eta bestelako begiluzeak bildu dira aretoan. Baina hiru irabazleetako bakarrak ere ezin izan du sari banaketan egon. Distantzia izan da errudun. Badajozkoa da lehen saria irabazi duen artista, Ciudad Realen dagoen Malagón herrikoa epaimahaiaren sari berezia jaso duena, eta Lugokoa lehiaketako gazterik onena. Amaian egon ez diren arren, hurbildutakoen txalo zaparrada jaso dute.

Lehen saria irabazi duen lanak, Melchor Balsera Maldonadorenak, *Olfato* du izena. Paperohol gainean egindako akrilikoa da. 2.500 euroko saria eman diote. Gainera, Irungo Udalaren arte bildumaren parte bilakatuko da. Laura Medida Soleraren *Sobre el dolor* obrak jaso du epaimahaiaren sari berezia. Diptiko handia da, 150x150 zm-koa. Teknika mistoa erabili du autoreak, paperaren gainean. 500 euroko saria eman diote, baita artista gazte onenari ere. Eduardo Varela Fernándezek jaso du azkena, *La Pintura en tela de juicio* lanagatik. Mihise gaineko olioa da. Hiruei udal zeramika tailerrean egindako plaka bana eman diete.

Lan deigarriak dira irabazleak. Ausartak. Helena Elbusto epaimahaiko kideak onartu du abangoardiako lanak hautatzeko joera dutela. Arrazoiak eman ditu, gainera: "Abangoardiako gaiak eta teknikak aukeratzen dituenak ausardia erakusten du. Kontuan hartu behar da Udalaren bilduma zabaltzea dela lehiaketaren helburuetako bat. Gaurkotzea da asmoa, eta horretarako, abangoardiako lanak behar ditugu". 77 lan jaso dituzte guztira, era askotarikoak. "Paisaia margotzen dutenek lan zoragarria egin behar dute irabazi ahal izateko, abangoardiako lanei aurre egin nahi baldin badiete. Batzuek lortu dute, horregatik dira finalista", adierazi du Elbustok.

Epaimahaiaren eta parte hartzaileen arteko komunikazioa azpimarratu dute

Epaimahaiko kideen irizpideak azaldu ditu Helena Elbustok. Gainera, bakarka xehetasun gehiago emateko aukera proposatu die parte hartzaileei. Baina galdera ere luzatu die: "Zergatik erabaki duzue lehiaketan parte hartzea?". Finalista izan den Ana Salegui donostiarrak onartu du lehiaketetan finalista edo saritu izateak aurrera egiteko "indarra" eta "konfiantza" ematen diela: "Estudioan gaudenean ez gaitu inork ikusten. Lehiaketak balorazioa jasotzeko aukera ematen digu". Epaimahaiko kideen hurbiltasuna ere azpimarratu du donostiarrak: "Nik lana aurkezten dudanean, gustatzen zait jakitea emaitzak zeintzuk izan diren, eta horien arrazoiak ere bai. Lehiaketa honetan epaimahaiko kideen informazio zuzena jasotzen dugu".

Aurten ere aitorpen zintzoa egin diete, abangoardiako lanen alde. "XX. mende hasierako abangoardiez ari baldin bagara, ez dira horren abangoardia", zehaztu du Aitor Rentería finalistak. Ana Saleguiri ondo iruditzen zaio teknika eta gai berrien aldeko hautua. Baina ez du bere burua abentura horretan murgiltzeko gai ikusten: "Gaztea eta ausarta izan behar da teknika berriekin ausartzeko. Ni ohiko brotxarekin eta pinturarekin konformatzen naiz". Renteríak ere gazteen esku utzi du abangoardiari heltzeko ardura: "Gazteek beste formazio bat jaso dute, eta bestelako mentalitatea dute".

Irundarrik ez da izan aurten Adour-Bidasoako 10 lehenengoen artean. Helena Elbustok gogoratu du margolanak baloratzerakoan ez dutela egileen berri izaten: "Datuen gutun-azalak itxita egoten dira, irabazleak hautatzen ditugun arte". Pena handia du, hala ere, irundarrik ez dutelako hautatu. Dena den, probabilitatea eskasa zela nabarmendu du, gutxi izan baitira parte hartzaile irundarrak. "Gazte asko ari dira Arte Ederrak ikasten, baina ez dira lanak bidaltzera ausartzen. Ez dakit zergatik, aukera ona delako obrei ikusgarritasuna emateko, profesionalekin hitz egiteko eta ikasteko", adierazi du Elbustok. Urtero egiten dute antzeko eskaria. 2016an 25 edizio beteko ditu Adour-Bidasoak. Aitzakia aproposa izan daiteke lanak aurkezteko.

Finalisten lanak ikus daitezke erakusketan.

Melchor Balseraren "Olfato" izan da irabazle.

Ohitura jasangarrien bila

Hamaika jarduera izan dira Irunen, Mugikortasunaren Astearen baitan

Zonbiek hartu dute Irungo erdigunea irailaren 16tik 22ra. Europako Mugikortasunaren Astearekin bat egiteko Irungo Udalak antolatu duen egitarauko protagonista izan dira. *Mugitu! Ez izan zonbi* izan da aurtengo leloa. "Autoak alde batera uztearen eta mugikortasun iraunkorraren alde egitearen garrantzia zabaldu nahi izan dugu", adierazi du Cristina Laborda Irungo Udaleko Mugikortasun ordezkariak. Aste osoko egitaraua proposatu du udalak horretarako, gaiarekin lotura zuten jarduerak barne hartuta.

Ttipi-ttapa ekimeneko edadetuek eman diote irteera Mugikortasunaren Asteari ostegunean, irailaren 17an. Bizilagun askorentzat eredu izan daitezke, astero gelditzen baitira goizeko ibilaldia egiteko. Mugikortasuna eta ariketa fisikoa estu lotuta daude, oinez edo bizikletan mugitzea autoaren alternatiba baitira. Eta jarduera fisikoak, eragin zuzena du osasunean. "Egiaztatuta dago egunean zehar ariketa egiteak onura handia dakarrela", nabarmendu du Iñaki Iturrioz udaleko kirol teknikariak. Zabaltza plazan izan da larunbatean, kirolaren eta osasunaren inguruko informazio gunean. Bizitza aktiboa egiteko aholkuak eman ditu bertan: "Lanera edo eskolara oinez joateak eragina izan dezake. Helburu egingarria da, eta osasungarria".

Errepidean, Colon ibilbidearen erdian, haurrei eta gaztetxoei zuzendutako aktibitateak proposatu ditu Ekin Kirola eta Bizitza Aktiboa enpresak. Aritz Olagoi arduradunak azaldu du helburua: "Irudikatu nahi duguna da kalea ere izan daitekeela jarduera fisikorako eremu. Irungo Colon ibilbidean gaude. Hemen, egunerokoan autoak ibiltzen dira, eta gaur errepidean bertan jarduera fisikoak proposatu ditugu". Gimnasioko ariketak edo akrosport-a egin ahal izan dituzte haurrek. Ipso Facto taldeko aktoreek irudikatutako zonbiekin jolasean ere aritu dira.

Belaunaldi gazteak kontzientziatzeko lanari garrantzia eman dio Udalak, baina Iñaki Iturriozek gogoratu du mezua gizarte guztiari zabaldu beharra dagoela: "Gazteak sentsibilizatzeak ez du ezertarako balio, gero etxean edo eskolan beste ohitura batzuk ikusten baldin badituzte". Autoan mugitzea ezinbesteko duten helduentzat, aukera jasangarriagoak ere badaude. Nissan Gaursak bi auto elektriko aurkeztu ditu Zabaltza plazan bertan. "% 100 elektrikoak diren autoek ez dute ezertxo ere kutsatzen. Gainera, zaratarik ez dute ateratzen. Asko aurreztu daiteke, erregairik eta azterketarik ez dutelako behar", azaldu du Nissan Gaursako Elena Alberdik.

Mugikortasuna, kirolari lotuta

Kirola egiteko aukera gehiago izan dira Mugikortasunaren Astean zehar. Larunbat iluntzean Gaueko Herri Lasterketa irten da San Juan plazatik. 400 korrikalari inguru aritu dira Irungo erdigunean korrika. Igande goizean, bizikleta martxa egin dute, Zabaltza plazan hasita. Hileroko igande sasoi ekimena ere hartu du Colon pasealekuko errepideak. Zabaltzan bertan, flashmob-a egin dute Pauso-K, Dance Studio, Toxic, Tatiana eta My Dance taldeetako dantzariek. Michael Jackson-en Thriller abestia dantzatu dute, zonbiz mozorrotuta.

Igande eguerditik aurrera, Sargia izan da jardueren erdigune. Girabira ekimenaren laugarren saioa hartu du parkeak. EzMugak eta Txikis del Bidasoa elkarteek hilean behin antolatu dute Girabira udan zehar. Kultur adierazpide bat hautatu dute bakoitzean. Oraingoan, grafitia eta hip-hop kultura. Iñaki Oiartzabalek gidatutako tailerrak arrakasta izan duela azaldu du EzMugak elkarteko Carlos Sanchezek: "Hirian edo kaleetan egiten diren esku hartzeak eta horretarako teknikak aurkeztu dizkigu. Atal teorikoa eta praktikoa izan dira". Break dance dantzaren eta rap musikaren laguntza izan du grafitiak. "Tokiko sortzaileen lana zabaldu nahi izan dugu oraingoan ere", adierazi du Sanchezek. My Dance Studio, Xabi Bboy, Afrodelicious, Soma Sound Sistem, M.Trucco, Natsu Monk, Little Lion, Mai Beloki eta Dynasti aritu dira Sargian.

Eskolara oinez ekimenarekin amaitu da 2015eko Mugikortasunaren Astea. Asteartean, irailaren 22an, planifikatutako eta seinaleztatutako ibilbideak jarraitu dituzte haurrek taldeka, ikastetxera joateko. Zonbien laguntza izan dute aurten. Irungo Mugikortasunaren Astearen azalpen adierazgarria egin du EzMugak elkarteko Carlos Sanchezek: "Hamaika jarduera egon dira. Irundik ez ateratzeko moduko astea izan da".

"Gazteak sentsibilizatzeak ez du ezertarako balio, gero etxean edo eskolan beste ohitura batzuk ikusten baldin badituzte"

Iñaki Iturrioz, Irungo Udaleko kirol teknikaria

"Irundik ez ateratzeko moduko astea izan da"

Carlos Sanchez, EzMugak elkarteko kidea

Hirira hurbildu dute feria

Txingudi Beer Week bihurtu du Estebeneak garagardoaren azoka

"Garagardoa egiteko prozesu osoa azaldu digute"
Igor Eizagirre (Estebenea jatetxea)

"Aromak eta zaporeak oso ezberdinak dira"
Jon Eskisabel (Zapiain Distribución)

"Ardo arrunta eta erreserba alderatzea bezalakoa da"
David Corral (Matxinada garagardoa)

2013an antolatu zuen lehen aldiz Estebenea jatetxeak garagardoaren azoka. Udaren amaiera arintzeko, garagardo bereziak eta Alemaniako janariak dastatzeko aukera eman zuen orduan. 2015ean, proposamena zabaldu eta Txingudi Beer Week garagardoaren astearen sustatzaile izan da Olaberria auzoko jatetxea. Tarteko hiru urte horietan, garagardoarekin loturiko beste fenomeno batek eztanda egin du: artisau garagardoaren loraldia hasi da. Errealitate hori kontuan hartu dute garagardoaren asterako.

Irungo eta Hondarribiko 18 taberna eta elkarte bildu ditu Txingudi Beer Week ekimenak, irailaren 14tik 20ra. Estebenea Jatetxea, Boulevard garagardotegia, Zapiain Distribución enpresa eta localbier.com web gunea izan dira antolatzaileak. Hiri handiagoetan ohikoa den formatua hautatu dute. "Londresen, Bartzelonan edo Madrilen ikusi izan ditugu antzeko ekimenak. Ideia da garagardo azoka hiri osora zabaltzea", azaldu du Estebenea jatetxeko Igor Eizagirrek. Establezimendu bakoitzak garagardo mota bana eskaini du aste osoan zehar. Bide batez, artisau garagardoek izan dezaketen harrera probatu ahal izan dute tabernariek. "Batzuei kostatzen zaie artisau garagardoaren aldeko apustua egitea", aipatu du Zapiain Distribución enpresako Jon Eskisabelek. Errealitate horri azalpena eman dio David Corralek, Matxinada garagardoaren ekoizleak: "Tabernek ardo onak bilatu izan dituzte beti. Baina garagardoa, merkea".

Gipuzkoako eta inguruko ekoizleen artisau garagardoak eskaini dituzte. Hurbiltasun horrek, ekoizleen presentzia ahalbidetu du. Tabernetan egon dira, kontsumitzaileekin hartu-eman zuzenean. Esperientzia aberasgarria izan dela adierazi du Eizagirrek: "Garagardoa egiteko prozesu osoa azaldu digute. Edo zergatik diren ezberdinak garagardoak". Afariak ere egin dituzte, garagardoa produktu gastronomikoekin uztartzeko. Irungo Atsegiñan eta Hondarribiko Danontzat Gastrotekan izan dira. Bestalde, garagardoa etxean egiten duten home-brewerren arteko topaketa eta lehiaketa egin dituzte. "Adituen edo esperientzia handiagoa dutenen iritzia jaso ahal izan dute, zertan hobetu dezaketen jakiteko", argitu du Igor Eizagirrek. Asteburuan Estebenea izan da azokaren erdigune. Bederatzi artisau garagardo eskaini ditu jatetxearen kanpoko aldean prestatutako barra berezian. Eguraldia lagun, garagardoaz gozatu ahal izan dute bezeroek.

Etorkizun handiko merkatua da

Eskualdeko erreferentzia da Estebenea, gaur egun, tokiko artisau garagardoari dagokionez. Hala ere, mundu hura kanpoan ezagutu zutela aitortu du Igor Eizagirrek: "Belgikako garagardoekin hasi ginela gogoratzen dut. Tradizio handikoak dira, 200 edo 300 urte dituzte batzuek. Gero konturatu ginen inguruan ere bazeudela halako garagardoak. Naparbier zegoen Noainen, Gross Donostian...". Denbora gutxian, beste hamarnaka ekoizle hasi dira. "Modan" dagoen mugimendua dela onartu du Jon Eskisabel banatzaileak: "Kanpoko eraginaren ondorioz iritsi da. Baina tokiko produktuaren abantailak eskaintzen ditu: freskotasuna, gertutasuna, ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko elkartrukea...". Epe laburrean, "ikaragarri" handituko den merkatua dela uste du Eskisabelek. Horretarako, kontsumitzailea heztea funtsezkoa dela azpimarratu du Igor Eizagirrek. Orain arte, artisau garagardoak onarpen "erlatiboa" izan duela onartu du: "Lasai eserita garagardoa dastatzea gustuko dutenek baloratzen dute artisau garagardoa. Trago luzea, azkarra eta freskagarria gustuko dutenek, aldiz, nahiago dute industriala".

Garagardo industrialarekin alderatuta, erabat ezberdina da artisaua. "Beste lehengaiak eta errezetak erabiltzen dituzte. Aromak eta zaporeak oso ezberdinak dira", nabarmendu du Jon Eskisabelek. Esaldi argigarria bota du David Corralek: "Garagardo industriala eta artisaua konparatzea, ardo arrunta eta erreserba alderatzea bezalakoa da". Ardoarekin ez bezala, kontsumitzaile gehienek garagardoarekin gozatzeko, produktua dastatzeko eta baloratzeko ohiturarik ez dutela baieztatu du Eizagirrek: "Garagardoa berotzen zaigunean, baztertu egiten dugu. Eta ez du zertan horrela izan. Garagardo batzuek, berotzen direnean, aroma eta zapore biziagoak hartzen dituzte". Beste mundu bat ezagutzeko aukera eman du Txingudi Beer Week garagardoaren asteak.

“Eskubaloiaren alde indarrak batzeko momentua da”

JOSÉ ÁNGEL SODUPE, C.D.BIDASOAKO PRESIDENTEA

La Rocan ozta-ozta irabazi ondoren, partidaren egunean egindako bidaia luzeak eragina izan zuela onartu zuen Fernando Bolea Bidasoako entrenatzaileak. Bi ordu lehenago iritsi ziren pabiloira, autobusean zortzi ordu egin eta gero. “Nahiago genuke bertan lo egin”, adierazi zuen entrenatzaileak. Baina klubak argi du mugak zeintzuk diren. “Lehentasuna arlo ekonomikoa da”, gogoratu du José Ángel Sodupe presidenteak. Laugarren agintaldiari ekin dio Sodupek, klubaren susperraldiari jarraipena emateko asmoz. Kirol arloan, behintzat, ondo hasi da 2015-2016 denboraldia. Abiada hartu Ohorezko B Mailan ari den lehen taldeak.

Zer iradokitzen dizu ligaren hasiera bikainak?

Oso goiz da ondorioak ateratzeko. Esaten dute ondo hasten dena ondo amaitzen dela, eta hori pentsatu nahi dut. Ideia izan da postu bakoitzeko bi jokalari edukitzea. Joan den urtean, partida bukatzeko hamar minutu falta zirenean, taldea leher eginda egoten zen. Aurten ez da halakorik gertatu, aldaketak ez direlako horrenbeste nabaritzen, eta jokalariek lasai atseden hartzeko aukera dutelako.

Denboraldiaurrea lasaia izan da aurten, aurreko bi urteetakoekin alderatuta. Argi izan duzue taldea Ohorezko B Mailan ariko zela. Eragina izan du horrek jokalariak lortzerako orduan?

Bai, noski. Joan den urtean, uztailaren amaieran talderik ez genuen oraindik. Berandu egin genuen, eta ez zitzaigun nahi bezain ondo atera. Aurten, play off-a amaitu eta hurrengo egunean hasi ginen lanean. Jokalarien zerrenda luzea osatu eta jende askorekin hitz egin genuen. Aukera zabala izan genuela esan nahi dut, azken finean. Uste dut talde txukuna osatu dugula, Ohorezko B Mailarako egokia.

Joan den urteko jokalarien multzo bat mantendu duzue. Baina besteek, erabat aldatu dute taldearen itxura eta jokatzeko modua. Zergatik iraultza hori?

Zuzendaritza Batzordean ere aldaketak izan dira. Jende berria sartu da, eskubaloia edo bereziki Ohorezko B Maila ulertzeko beste era batekin. Kategoria berezia da, jokalarien garaierak eta pisuak ez du horren garrantzia handirik. Nortasun handiko jokalariak behar dira, lehiakorrak.

Maiatzean Fernando Bolearen kontratua berritu zenuten, igoera fasearen aurretik. Zergatik ez zenuten itxaron?

Hori nire erabakia izan zen. Pentsatu nuen ideia ona zela kontratua berritzea, Fernando Boleari lasaitasuna emateko, igoera fasean % 100 kontzentratuta egon zedin. Jende askok galdetu zidan ea zergatik ez nuen itxaron. Nire erabakia izan zen, eta ez naiz damutu. Ulertu behar da joan den urteko taldea berandu egin genuela, ez zela egokiena. Gainera, niri konfiantza ematea gustatzen zait. Fernando Bolea maitatua da Irunen, eta lan ona egin du aurreko urteetan.

Espainiako Eskubaloi Federazioko Zuzendaritza Batzordera itzuli zara, 2014ko udaran dimisioa aurkeztu ondoren. Zer aldatu da?

Uda horretan izandako gorabehera guztien ondorio izan zen dimisioa. Beroaldia, nahi baduzu. Francisco Blázquez presidenteak ez zuen dimisioa onartu, esan zidan noizbait bueltatuko nintzela. Urte osoan zehar hausnartzen ibili naiz, eta Bidasoako zuzendaritza berriarekin kontsultatu eta gero, bueltatzea erabaki dut.

Dimisioa aurkeztu zenuenean, salaketa gogorrak egin zenituen Asobal Ligaren aurka. Horren gaizki al dago? Ba al du irtenbiderik?

Konponbide zaila du, egia esan. Ez da lehiaketa garbia. Gainera, Asobal Ligaren eta Espainiako Eskubaloi Federazioaren arteko harremana ez da ona. Nik uste dut eskubaloiaren alde indarrak batzeko momentua dela. Norabide berdinean egin behar dugu aurrera. Ni eskubaloia berpizten ahalegintzeko lan egiteko asmoz nago federazioan.

Hamahiru urte daramatzazu presidente karguan. Klubaren urterik okerrenak bizi izan dituzu, erretiratzetik hurbil izan zara behin baino gehiagotan. Zerk eraman zaitu aurrera jarraitzera?

Bihotza izan da, klubarekiko maitasuna. 2011n desagertzetik oso hurbil izan zen kluba. Ingurukoen babesa eta laguntza handia izan nuen orduan. Buelta asko eman behar izan nizkion, eta familiarekin kontsultatu. Hortik aurrera, borroka eta lan handia egin behar izan ditugu kluba onbidean jartzeko. Gutxi falta zaigu zorra hutsean uzteko.

Zein helburu jarriko zenioke zure buruari, kluba asebeteta uzteko?

Bi izango lirateke: arlo ekonomikoan, klubak superabita edukitzea. Kirol arloan, taldea Europa mailan aritzeko sailkatzea. Handinahikeria dirudi, baina lor daitekeela uste dut, Asobal Liga nola dagoen ikusita. Lau urte barru, agintaldia amaitzerakoan, helburu horiek bete baldin baditugu, lasai utziko dut kluba.

2011n hondoa jo zuen klubak. Lau urtetan, baina, harrigarria izan da susperraldia. Zein izan da gakoa?

Gastuekin oso zorrotzak izatea. Kontuak alderantziz egiten hasi gara. Ordura arte taldea osatzen genuen, helburuak jartzen genituen, eta gastuei begiratzen genien ondoren. Momentu hartatik aurrera, zorrak kitatzeko kopuru handi bat baztertzen dugu, eta gainerakoarekin, ahal bezain beste egiten dugu. Lehentasuna arlo ekonomikoa bideratzea izan da.

Taldearen oinarria zabaltzeko ahalegina ere egin duzue azken urteotan. Zer moduz dago Bidasoaren harrobia?

Asko handitu da, baina momentuz gelditu behar izan dugu, gainezka egin ez dezan. Gure esku ditugun azpiegiturak eta laguntzaileak kontuan hartu behar ditugu. Hamasei talde ditugu, neskenak horien artean. Bestalde, filiala Estatuko Lehen Mailan edukitzea lortu dugu. Jokalariak prestatzeko kategoria egokia da, Lehen taldera iristeko eman beharreko jauzia txikiagoa baita.

Estatuan eskubaloiaren egoera zein den ikusita, poztekoa da Bidasoak mantentzen duen zaleen kopurua.

Asobalen izan ginen denboraldian, partida bakoitzean pabiloira jende gehien eramaten zuen taldeetako bat izan ginen. Datu adierazgarria da hori. Eskubaloiak tradizio handia du Irunen, Bidasoak zale fidelak ditu. Beste klub askok eta eskubaloiarekin harremana duen jendeak ere Asobal Ligan ikusi nahi du berriro Bidasoa.

Txuribeltza izango da Txingudi Korrika

Real Unionen mendeurrenarekin bat egin du aurten lasterketak

Bidasoa Atletiko Taldeak 1998an antolatu zuen lehen aldiz Txingudi Korrika. Herri lasterketa hutsa baino gehiago sortu nahi izan zuen orduan atletismo elkarteak. Txingudiko Badiako hiru hiriak lotzea izan zen hasierako asmoa. "Senidetzea bilatu genuen, kirol arloan eta kulturalean", gogoratu du Joseba Sarriegi BATeko kide beteranoak. Aurrerantzean, aldaketa ugari izan du lasterketak. Aurten, hamazazpigarren edizioan, Real Unionen mendeurrenarekin bat egin du Txingudi Korrikak. Urriaren 3an izango da

Hamalau kilometroko lasterketa izan zen Txingudi Korrika hasieran. Hendaiako, Irungo eta Hondarribiko udaletxeen aurretik pasatzen zen, horrek zekarren ondorioarekin. "Oso proba gogorra eta maldatsua zen", argitu du Joseba Sarriegik. 2007an, 12 km-ra laburtu zuten ibilbidea. 2010ean, IAAF Nazioarteko Atletismo Federazioen Elkartearen distantzia ofizialetara egokitzea erabaki zuten. 10 km-koa da orain lasterketa. Ibon Muñoz klubeko kirol zuzendariak azaldu du arrazoia: "Herri korrikalariari denborak konparatzea gustatzen zaio. Horregatik, urtero distantzia aldatzen aritzeak ez du zentzurik". Gainera, ibilbide lauagoa da orain. Hiru malda besterik ez daude. Hendaiako erdigunera doana, geltokikoa, eta Irungo Iparralde Hiribidekoa.

Lehen hamabi edizioetan sariak dirutan banatzen zituzten. 2010ekoaren ondoren, berriz, alde batera utzi zituzten. "Urte hartan sarien zenbatekoa handitu genuen. Ondorioz, marka bitxia hautsi genuen: lehen hamabi sailkatuen artean, hamaika marokoarrak izan ziren", azaldu du Sarriegik. Lasterketaren hasierako helburua lausotzen zutelakoan, dirutan emandako sariak ezabatzea erabaki zuten. 2010ean beste berritasun bat izan zen Txingudi Korrikan. Korrikalariez gain, patinatzaileek ere parte hartu zuten, lehen aldiz. Aurten bosgarrenez ariko dira. 16:20ean irtengo dira Hendaiatik, korrikalariak baino hamar minutu lehenago. Hondarribiko pistara sarrera moldatuko diete, joan den urtean bat baino gehiago erori baitzen azken bihurgunean.

Real Unioni besoa luzatu dio BATek

2015ekoa ere sartuko da Txingudi Korrikaren edizio berezien artean. Real Unionen mendeurrenarekin lotuta geratuko da. Ricardo García elkarte txuribeltzeko presidenteak babesa eskertu dio Bidasoa Atletiko Taldeari: "Irungo gizartearen eta gainerako elkarteen babesa sentitu dugu urteurren honetan". Lasterketaren izenean bertan, agerian gelditu da lotura. Kartelek, dortsalek eta kamisetek ere aipamena egingo diote. Parte hartzaileentzako kamiseta berezia prestatu dutela baieztatu du Ibon Muñozek: "Real Unionen mendeurreneko logotipoa darama aurrean, eta hamar zenbakia atzean. Materiala ere hobea da, korrikalariak antzemango duela uste dugu".

Urriaren 3an, goizeko hamarretan, haurrentzako lasterketa izango da Stadium Galen inguruan. Luis Yerga Memoriala izena jarri diote, BATeko atleta eta Real Unioneko masajista izan zenaren oroigarri. "Atletismoa pasioa zen berarentzat. Real Unionen, langile maitatua izan zen", adierazi du Ricardo Garcíak. Txikiena ez da lasterketa lehiakorra izango. Ez dituzte dominak banatuko, eta ez dituzte denborak hartuko. 10:00etan hasiko dira lasterketak. Laburragoak eta luzeagoak egongo dira, parte hartzaileen adinaren arabera. Lehenago, beroketa ariketak egin beharko dituzte haurrek, BATeko eta Real Unioneko monitoreek gidatuta. Futbol elkarteko kideen babesa izango du BATek Txingudi Korrikaren antolakuntzan. Hendaiako tarterako, Urpean urpekaritza elkartearen laguntza jasoko du.

Lasterketa nagusia arratsaldean izango da. 16:30etan irtengo da, Hendaiako Floridako portutik. Helmuga Hondarribiko atletismo pistan egongo da. Ibon Muñozek aipatu du antolatzaileentzat "erosoa" dela amaiera hori. Edariak, dutxak eta helmugako beste azpiegiturak kudeatzeko leku aproposa da pista. "Parte hartzaileei ere gustatzen zaie azken metroak tartan gainean egitea", azpimarratu du Muñozek. Joan den urtean 761 parte hartzaile izan ziren Txingudi Korrikan. Kopuruak gora egin du azken urteotan, eta aurten ere gehiago espero dituzte. Izena emateko aukera ezberdinak daude: internet bidez www.kirolprobak.com edo www.pb-organisation.com web guneetan egin daiteke, edo Leire Sport, Olamusu Kirolak eta Papycop dendetan, bestela.

Super Amara-BATek urte osoan antolatzen dituen jarduerak:

ATLETISMO ESKOLA:
2002 eta 2007 urteen artean jaiotako haurrei zuzendutako taldeak, Irunen eta Hondarribian.

OPOSIZIOAK PRESTATZEKO ETA TALDEAN KORRIKA EGITEKO TALDEAK:
Tituludun entrenatzaile pertsonalek gidatuko dituzte. Ordutegi zabalak eta maila ezberdinetako taldeak egongo dira.

EMAKUMEEN TALDEA:
Tituludun entrenatzaile pertsonalak gidatuko du taldea. Helburuen araberako prestaketa eskainiko du. Ordutegia: astelehena, asteazkena eta ostirala, 17:45-19:15.

GAZTEEN TALDEA:
Tituludun entrenatzaile pertsonalak gidatuko du. Taldean kirola egiteko modua, lehiatzeko helbururik gabe. Ordutegia: astelehena, asteazkena eta ostirala, 17:45-19:15.

IZENA EMATEKO EDO INFORMAZIOA JASOTZEKO:
batih@telefonica.net
625 261351

ONAK AL DIRA HAURREN ETA HELDUEN ARTEKO GATAZKAK ?

NOLA KUDEATU GATAZKAK MODU POSITIBOAN, HEZIGARRIAK IZAN DAITEZEN? (lehen atala)



Gatazkak nola kudeatu behar genituzkeen aztertu baino lehen, gatazkak onak diren galdetu nahi nizueke. Zer iruditzen zaizue? Gatazkak onak al dira? Noiz sortzen dira gatazkak?

Zure beharrak eta nireak asetzen badira, ba al dago gatazkarik?

Zure beharrek nireak asetzen uzten ez didatenean, orduan sortzen da gatazka. Adibidez: bi haur elkarrekin jolasten ari dira eta biek pilotarekin jolastu nahi dute. Bien beharra berdina da, beraz, ez dago gatazkarik. Hala ere, demagun bakoitzak joko desberdinetan aritu nahi duela, hor azaltzen da gatazka. Beharrak desberdinak dira eta estrategiak behar dituzte gatazka hori konpontzeko. Estrategia positiboak lirateke egokienak: txandakatu jolas ezberdinak, gaur nirea eta bihar zurea, banantzea eta beste lagunak bilatzea nahi dutenean jolasteko…

Arruntak dira gatazkak bizitzan. Prebenitzen saiatu behar da, baina etortzen direnean, gainditzea ezinbestekoa da. Gatazka prozesu bat da eta pertsonen beharretan du oinarria; behar biologikoak, ekonomikoak, ideologikoak, emozionalak…

Krisialdia eta gatazka gauza bera da?

Eguneroko arazotxoak edo gatazkak gainditzen ez direnean, gatazka KRISI bihur daiteke. Beraz, krisialdia ez da gatazka. Hori sinesten badugu, arazo edo gatazkeei ez diegu aurre egingo KRISIALDIA ematen den arte. Adibide bat?

Haurrak patiora korrika eta batera jaisten dira, lehenak iritsi nahi dutelako (gatazka). Egun batean mutil bat erori eta hanka hautsi du (krisia). Arazoa edo gatazka ikusten dugunean gatazka konpontzen saiatu behar gara; gela guztiekin hitz egin eta denen artean antolatu nola jaitsi; zaharrenak lehenengo, edo zaharrenak txikiak laguntzen dituztela, edo denak batera baina ilaran …. Denen artean gatazka konpontzen denean, denek parte hartzen dutenean, gatazka gainditzen da, beharrak asetu eta krisia aurreikusten edo prebenitzen da. Beraz:

Edozein arazok edo gatazkak etorkizunean haurrarekin edo gaztearekin plangintza kooperatiboa egiteko balio digu, krisialdi bat eman ez dadin.

Hala ere, onartu beharra dago ez helduok eta ezta haurrek edo gazteek ere, gatazkak ez ditugula eguneroko gertakari normaltzat hartzen. Gainera, denbora asko behar da gatazkei aurre egiteko eta gure gizarte estresatuak ez digu aukerarik ematen.

Zer egiten dugu helduok bi haurrek edo gaztek liskarra edo gatazka dutenean? Zein da gurasoen edo hezitzaileen rola gatazkaren aurrean?

1. EPAILE: zerbait gertatzen denean nor hasi den galdetzen dugu. Pentsa dezagun. Benetan jakin dezakegu non hasten den gatazka bat? Momentuan beharbada ikusi dugu batek bestea jo duela, baina agian ez dakigu kolpea jaso duenak eman duenari beti tuntuna deitzen diola. Bestalde, benetan inporta al du gatazka nork hasi duen jakiteak?

2. POLIZIA: liskarra izan dutenengana joan eta banatu egiten ditugunean. Gehienetan zigortu egiten ditugu, bien ardura delako.

3. OSTRUKA: gatazka ikusten dugu baina ez ikusiarena egiten dugu, burua lur azpian sartzen dugu, ostruken antzera. Edo haurrei edo gazteei bakarrik konpontzeko esaten diegunean, eta gatazka hori konpontzeko estrategia positiboak erabiltzen ez dituztenean.

4. ARMARRIA IPINTZEN, PERTSONALIZATZEN: gatazka modu pertsonalean hartzen dugunean ematen da. Gu izorratzeko egin dutela pentsatzen dugunean. Rol hauek momentuan baliagarriak badira ere, ez dute haurra edo gaztea hezten. Beraz, zer egin dezakegu guraso edo hezitzaileok? Haurrak gatazkak konpontzeko hezi, gatazkekin bizitzen ikasi.

NOLA EGIN HORI? Ez da erraza. Gure rola aztertu behar genuke lehendabizi: zein da gure joera gatazka baten aurrean? Kontziente izan hori aldatzen saiatzeko. HEZITZAILE ROLA hartu behar dugu, gatazka baliagarri izan daiteke gainditzen ikasteko, estrategia positiboetan hezteko.

LABURBILDUZ:

Gure rola aldatzen saiatu.

Bizipen positiboa ikusi eta denbora hartu haurrarekin edo gaztearekin gatazkei aurre egiten ikasteko.

Zer gertatu den galdetu, lasaitasunez eta adeitasunez entzun, eta haurrei hitz egiteko denbora eskaini.

Tarte bat eskaini haur edo gazte bakoitzari gertatu dena eta sentitzen duena adierazteko. Komunikazio asertiboa eta positiboa bideratzen saiatu.

Enpatia landu kide bakoitzarekin: gustatuko litzaizuke zuk egindakoa zuri egitea?

Gaizki egindakoaren ardura hartzen laguntzea eta jarrera desegokia konpontzeko aukera ematea. Kulpa sentitzea eta adieraztea gaizki egin bada. Denok egiten ditugu gauzak gaizki, inor ez da perfektua, baina gaizki egindakoa konpondu behar da.

Errua onartzen edo gaizki egindakoa bideratzen erakustea. Zer egin dezakezu gaizki egindakoa konpontzeko? Beraien ekintzen ardura hartu behar dute, egin dutenaren ondorio logiko eta naturalak bizi, hurrengo batean berriro gaizki egin ez dezaten.

Ez inposatu gure nahiak. Beraiek erabaki dezaten zer egin konpontzeko. Ez bazaie ezer bururatzen aukera desberdinak eman, beraiek erabaki dezaten.

Adibidez: gaizki egin dugula sentituz barkamena eskatzea, apurtutakoa konpontzea, marrazki bat egitea, botatakoa jasotzea, negoziatzea…

Puntu horiek guztiak gatazketan hezitzen ikasteko pistak dira. Ezin dugu egunero ditugun gatazka guztietan gelditu, baina bat bederen hartzen badugu, gure haurrak trebatzen ariko gara. Ondo izan eta datorren alean jarraituko dugu gatazkekin!

Kuttun aholkularitza psikopedagogikoa.

MAPI URRESTI ORTIZ

Txingudi Ikastola. Miguel Ángel. 4 urte

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf: 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Txingudi Ikastola BHI 3. maila. Beñat Oiartzun Arieta-Araunabeña

Algaraka

Emandako argazkiari erreparatu eta istorio bat sortu behar dute ikasleek, umore puntu batez.

- Pipipi, pipipi - jo zuen Aitorren alarmak goizeko 7:30ean. Gaur da eguna!- oihukatu zuen, ohetik altxa eta gero, urduritasun pixka batekin

- Gaur izango da hain garrantzitsua den nire lan elkarrizketa. Ufff, beno, guztia perfektu atera behar zait.

Aitor dutxara joan, ura berotu, eta ur azpian sartu zen.

- Kaka! Galtzerdiekin sartu naiz eta! Uff, eguna ez da oso ondo hasi, baina hemendik aurrera dena perfektu egingo dut.

Galtzerdi bustiak kendu eta dutxan sartu zen. Xaboiarekin gorputz guztia garbitu, eta berriro busti zen xaboia gainetik kentzeko.

- Beno ba, orain janztera, mmm... Erabili behar dudan arropa garbitu al nuen?

Aitor korrika joan zen armairura, ea bere amerikana garbi zegoen ikustera. Zorionez hor zegoen jaka, baina praka ez zegoen guztiz laua.

- Ez! Orain plantxatu beharko dut eta denboraz oso justu nabil!

Amak baino azkarrago plantxatu zituen bere prakak, eta bai, biluzik zegoen oraindik. Orduan, bere armairura jo eta galtzontzilo gorriak jarri zituen, polo txuri bat soinean.

-Hara ba, tuntuna naiz, ordu bat lehenago altxatu naiz eta!- Esan zuen ordularia begiratzerakoan.

Orduan, lasai asko joan zen sukaldera, gosaltzeko helburuarekin.

- Eta orain, nire eguneroko kafea, magdalena batzuekin!- Esan zuen pozik eta erdi kantari. kafea prestatu zuen lasaitasun osoz, magdalenak hartu, telebista jarri, berriak aldatu, magdalenak kafean busti eta jan zituen. Horrela 9 magdalena jan zituen.

- Uff uste dut kalte egingo didatela.

Esan zuen, gosaldu eta gero.

Komunera joan zen eta bizarra mozten hasi zen.

- Au! Ahh! Agg!- esan zuen, zauri txikiak eginez- Ez dakit bizarra mozten edo?

Gero, hortzak garbitu eta maleta prestatu zuen. Hori guztia egin eta gero, lanerako elkarrizketa errepasatzen hasi zen.

- Lehenengo, nire burua aurkeztuko dut... etab.

Errepasatzen zebilen bitartean, bi minutu berandu zihoala ohartu zen. Korrika eta presaka, amerikana jarri, korbata lepoan ipini, kapelua jantzi, maleta hartu eta etxetik korrika atera zen. Garajera zihoanean, kotxea ikusi eta giltzak ahaztu zituela ohartu zen, beraz ezin zen kotxean sartu... Orduan, metrorako bidean jarri zen, baina metroa urruti zegoenez taxia hartzea erabaki zuen.

- Taxi! Taxi! - horrela, pasa zen bosgarren taxia gelditu zen arte.

- Nora goaz? Galdetu zion taxilariak.

- Metro geltokira mesedez, eta azkar! erantzun zion Aitorrek.

Iritsi zirenean, dirua ez zeramala ohartu zen Aitor, eta autoa gelditzean, atea ireki eta ordaindu gabe korrika atera zen. Itzuli hona! Lapur hori!!- garrasi egin zion taxilariak Aitorri, baina korrika jarraitu zuen metroraino. Han denek arraro begiratzen ziotela konturatu zen, baina ez zekien zergatik. Hasieratik gaizki hasten dena, ezin da ondo bukatu. Orduan ohartu zen, metroan bere burua islatua ikusi zuenean, prakak etxean utzi zituela. Han zegoen bera, goibel eta prakarik gabe.

Sare sozialen erabilera 2016an

eMarketer-ek egindako ikerketa baten arabera, 25 eta 34 urte arteko gazteak dira sare sozialak gehien erabiltzen dituztenak (35,3 milioi erabiltzaile). 35 eta 44 urte artekoak dira hurrengoak (29,7 milioi). Azken tokian daude 65 urtetik gorako erabiltzaileak (14,6 milioi), baina multzo hori izango da, hain zuzen ere, 2016 urtean gehien haziko dena. 16 milioira helduko da. Datu esanguratsua da 2015ean 180 erabiltzaile inguru izan dituztela sare sozialek.

2016rako aurreikusitako datuak:

Facebook

2016an, 160,9 milioi erabiltzaile izango ditu Facebook-ek. Sare sozialetan erabiliena izaten jarraituko du. Adin multzoek aurreko urteko kopuruei eutsiko diete. 65 urtetik gorakoena haziko da bakarrik, eta % 0,8ko hazkundea izango du 2015arekiko (% 6,8tik % 7,6ra). 18 eta 24 urte arteko erabiltzaileen multzoak % 0,6 galduko du.

Twitter

53 milioi erabiltzaile izatetik, 57,3 milioi edukitzera pasako da 2016an. 18 eta 24 urte arteko gazteak dira microblogging sare hori gehien erabiltzen dutenak (% 22,6).

Pinterest

Gora egingo du 2016an. 47,6 milioi erabiltzaile izatera helduko da 2016an. Erabiltzaile horietatik, 10,2 milioi 25 eta 34 urte artekoak izango dira. eMarketer-en ikerketako datuen arabera, X belaunaldiko kideek eta horiek baino helduagoek bakarrik jarraituko dute “pineatzen”.

Tumblr

2016an gutxien haziko den sare soziala da. 2 milioi erabiltzaile gehiago lortuko ditu bakarrik (21,1 milioi guztira). Adin tarte guztietan jasango du galera, 17 urtetik beherakoetan izan ezik.

Instagram

Gehien haziko den sare soziala izango da. Aurten 60 milioi erabiltzaileen langa gainditu dezakeela aurreikusten dute. Twitter eta Pinterest gainditu ko lituzke horrela. 2016an, 65,3 milioi erabiltzaile izatera heldu daiteke. 17 urtetik beherakoak ohiko erabiltzaileak dira Instagram-en. 11 milioi baino gehiago dira. Baina adin multzo nagusia, 25 eta 34 urte artekoena da (% 32,2).

OC&C Agencia de Marketing Digital.

Kirola eta euskara, atseginez

Urrian ekingo diete lehen hezkuntzako haurrek eskolaz kanpoko jarduerei. Ia guraso guztiek bidaliko dituzte kirola egitera, hizkuntzak ikastera edo formazio musikal edo artistikoa jasotzera, besteak beste. Haur batzuk ilusioz eta ikasteko gogoz joango dira. Beste batzuk, arratsalde pasa besterik ez. Baina gehienek bizitza osoan gogoratuko dituzte jarduera horietako bizipenak. Eskola Kirola da, urtero, arrakasta gehien duenetako bat. 581 neska-mutil aritu ziren joan den urtean, 45 taldetan banatuta.

Eskolan geldituko dira haurrak astean bi aldiz, klaseak amaitu ondoren. Ordubeteko entrenamendua izango dute. Eskubaloia, saskibaloia edo futbola landuko dituzte, hogeita hamahiru monitoreren eskutik. Iñaki Iturrioz Irungo Udaleko kirol teknikariak baieztatu du monitoreak "kualifikatuak" direla: "Esperientzia dute, badakite zertan ari diren. Talde lana, elkartasuna, kiroltasuna eta bestelako baloreak helaraziko dizkiete haurrei". Modu atseginean landuko dituzte kirolak, haurrak gustura aritu daitezen. "Bizitza aktiboaren eta kirola egitearen onurak barnera ditzaten nahi genuke. Bizitza osorako balio dezakeen oinarria izan daiteke", adierazi du Pedro Alegre Kirol Arloko ordezkariak.

Eskubaloia, saskibaloia eta futbola izango dira kirol nagusiak. Hiruhileko bakoitzean bana landuko dute. Bestelako lan saioak ere egingo dituzte noizbehinka, erraketa kirolak, atletismoa, igeriketa, pilota edo errugbia ezagutzeko. Astean bi entrenamendu izango dira, eta larunbat goizetan partidak jokatuko dituzte. Pedro Alegrek azpimarratu nahi izan du ez dutela lehiakortasuna bultzatuko. Kirola egiteko ohitura ahalik eta gehien zabaltzeko asmoz, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin bat egin du Irungo Udalak. Ondorioz, mugikortasun murriztua duten neska-mutilek ere kirola egiteko aukera izango dute. "Denek aukera berberak eduki behar lituzkete", nabarmendu du Alegrek. Dei berezia egin diete neskei, gutxiengo baitira oraindik ere. 5. eta 6. mailako taldeetan, bereziki, behera egiten du nesken kopuruak. "Neskak eta haien familiak animatu nahi ditugu", azpimarratu du Josune Gomez Euskara Arloko ordezkariak.

> "Bizitza osorako balio dezakeen oinarria izan daiteke"
>
> **Pedro Alegre, Kirol Arloko ordezkaria**

> "Neskak eta haien familiak animatu nahi ditugu"
>
> **Josune Gomez, Euskara Arloko ordezkaria**

> "Begiraleek haurrekin euskaraz egiten dute, eta haien artean ere bai"
>
> **Iban Eguzkitza, Euskara Arloko zuzendaria**

Euskara lantzeko eremu aproposa da

Euskara sustatzea da Eskola Kirolaren beste helburu nagusia. Euskara da programako jarduera guztien hizkuntza. Horretarako, monitoreen lana gakoa dela gogoratu du Iban Eguzkitza euskara teknikariak: "Begiraleek aurrekin euskaraz egiten dute, eta haien artean ere bai". Azken urteotan ezagutza handitu bada ere, erabilerari dagokionez erronka handia du oraindik Irunek. Zentzu horretan, haurren artean erabilera zabaltzeko, komeni da euskara eta aisialdiko ekintzak lotzea. "Eremu akademikotik kanpoko erabilera sustatzea ezinbestekoa da. Kirolak, esaterako, euskara gozatzeko aukera aproposa ematen du", aipatu du Josune Gomezek.

Irungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziazioa jasotzen du Eskola Kirola programak. Hala ere, parte hartzaileen kuotak behar ditu sostengatzeko. Prezio orokorra 121 eurokoa da. Dena den, aurten, 30 euroko kuota berezia ordaindu ahal izango dute DBE Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten gurasoek. Erabakia aurrekontu parte hartzaileetako proposamen bati erantzunez hartu dutela aitortu du Pedro Alegrek: "Horrelako programei begira, oso diru-sarrera txikiak dituztenentzat laguntza bereziak eskaintzeko eskatu zuen proposamen batek". Ordainketa bitan banatzeko aukera dago, gainera. Lehena urrian egin daiteke, eta bigarrena urtarrilean. Maiatzaren 31n amaituko da Eskola Kirola programa.



- LEHEN SOROSPENETAKO IKASTAROA IRUNEN

Zer? 40 orduko lehen sorospenetako ikastaroa Irunen.

Noiz? Azaroaren 9tik 24ra. 18:00etatik 21:20etara (astelehenetik ostiralera)

Non? Irungo Gurutze Gorriaren Tokiko Ordezkaritzan (Euskal Herria hirib., 14)

Prezioa? 110 euro

Izena emateko:
Deitu 943 62.11.62 telefonora edo idatzi irun.sociales@cruz-roja.es helbide elektronikora. Adierazi izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa.

DYA GIPUZKOA

LEHEN SOROSPENETAKO IKASTAROA DONOSTIAN

Zer? Hala nahi duten ikasleek Sorospen titulua eskura dezakete kurtso amaieran kalifikazio probak gaindituz gero.

Noiz? Irailaren 28tik urriaren 19ra. 19:00etatik - 21:00etara (astelehenetik ostiralera)

Non? DYAko Formazio eta Boluntariotza Gunean (Baratzategi kalea, 10 - Intxaurrondo.

Prezioa? 110 euro.

Izena emateko: Deitu 943 46 46 22ra.

- MAGIC FESTA: THE GATHERING

Zer? Irunen Magic festa antotzat, baita inoiz jolastu ez dutenentzat ere. Hasi berriei lehen mazoa oparituko diete.

Noiz? Urriak 3.

Ordutegia? 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era.

Telefonoa? 943 617 516
Non? Tinta Comics (José Eguino kalea, 10).

XVII TXINGUDI KORRIKA (HENDAIA-HONDARRIBIA)

Zer? Hendaia, Irun eta Hondarribia lotzen dituen 10 kilometroko lasterketa.

Noiz? Urriak 3

Izena emateko: http://www.kirolprobak.com/competicion_ficha.php?id=1365&lang=eu

Informazio gehiago? 9.orrialdean.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrika, 2.behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Ordutegi berria!
Urriaren 5etik aurrera, Gazte Informazio Bulegoan neguko ordutegian izango gaituzue:

- Astelehenetik ostegunera 11:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:30era

- Ostiraletan 11:00etatik 13:30era

Hori bai, gogan har ezazu gure ateak egunero-egunero 24 orduz irekita dituzula Interneten!

... eta WhatsAppen ere bai, 607 771 173 zenbakiaren bidez

Eeeee !!!!! Zer gertatzen da nire etxebizitzarekin ?????

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), gazteentzako etxebizitza neurrien inguruan gazteek duten iritzia jaso nahi du, gero hobekuntza proposamenak administrazioei helarazteko.

Galdetegi baten bitartez proposamenak egin daitezke... 15 minutu besterik ez dira izango! Sartu www.egk.org web orrian.

Galderak, zalantzak edo iritziak helarazi nahi izanez gero, bi bide eman dituzte: 945 220601 telefonora deitu edo bizibaldintzak@egk.org helbidera email bat bidali.

Urriak 3

Zer? Oskar Benas-en kontzertua.

Non? Kabigorrin.

Prezioa? Doako sarrera

Urriak 4

Zer? Girabiraren 5. jardunaldia.

Non? Mendibil parkean.

Prezioa? Doako sarrera

Urriaren 2tik 11ra

Zer? Artia eta Azken Portu Auzo Elkarteko Kultur Astea.

Informazio eta programa guztia? www.irun.org en

GIRA BIRA

DONEJAKUE ASTEA TXINGUDIN 2015 URRIAREN 12TIK 25ERA

ASTELEHENA, 12, 19:00etan, "EXPOBIDE" erakusketaren inaugurazioa, Laboral Kutxaren kultura aretoan. SANTIAGO BIDEETAKO argazkiak. ANDRES VALENCIA (Jacobiko kidea).
ASTEARTEA, 13, 19:00etan, AMAIA KZko HITZALDI ARETOAN, "KRISMOIAREN GARRANTZIA SANTIAGO BIDEAN" izenburuko ikus-entzunezkoa. Hizlaria: CARLOS GALINDO.
ASTEAZKENA, 14, 19:00etan, AMAIA KZko HITZALDI ARETOAN, "ELEZAHARREN BIDEA" izenburuko ikus-entzunezkoa. Hizlaria: CARLOS GALINDO.
OSTEGUNA, 15, 19:00etan, AMAIA KZko HITZALDI ARETOAN, "BIDEAREN KRONIKAK" eta "EUSKAL HERRIAN BARRENAKO BIDEAK" izenburuko dokumentalak.
OSTIRALA, 16, 19:00etan, AMAIA KZko HITZALDI ARETOAN, "SANTIAGO BIDEAREN JATORRIA: HIPOTESI POLITIKO BAT" izenburuko ikus-entzunezkoa. Hizlaria: RAMON AYERZA.
IGANDEA, 25, 13:30ean,"EXPOBIDE"-ren bukaera ekitaldia.

IRUNABAR - Irungo bertsoaren Bilgunea

1. HAUR ETA GAZTETXOEN BERTSO ESKOLA (Hasi berriak eta 14 urte bitarteko gazteak)

Eguna: astelehena

Ordua: 17:00-18:30 (IAZTIK, ORDU ALDAKETA, ERNE!)

Tokia: EKT (Euskal Kultur Taldea). Larretxipi kalea 12, Irun.

Lehendabiziko eguna: urriak 5

2.- BAT-BATEKO BERTSO ESKOLA I (Adin guztietako hasiberrientzat)

Eguna: asteazkena

Ordua: 18:30-20:00

Tokia: Junkal Kalea, 22 (Erromes plaza eta Junkal eliza artean).

Lehendabiziko eguna: urriak 5

3.- BERTSOLARITZA TAILERRA (BERRIA. Adin guztiak): Bertsogintza ez ezik (bat-batekoa zein idatzizkoa), bertsolaritzaren eta bertsogintzaren bueltako beste hainbat aspektu landuko ditugu, hala nola, historia, gai-jartzea, epaitzea, jende-aurrekotasuna … Beraz, bertsolaritza bere luze-zabalean ezagutzen hasteko tailerra izango da.

Eguna: asteazkena

Ordua: 18:30-20:00

Tokia: Junkal Kalea, 22 (Erromes plaza eta Junkal eliza artean).

Lehendabiziko eguna: urriak 7

4.- BAT-BATEKO BERTSO ESKOLA II

Eguna: astelehena

Ordua: 18:30-20:00

Tokia: Junkal Kalea, 22 (Erromes plaza eta Junkal eliza artean).

Lehendabiziko eguna: urriak 5

5.- BAT-BATEKO BERTSO ESKOLA III

Eguna: osteguna

Ordua: 19:30-21:30

Tokia: Jaizubia auzoko elkartea (Hondarribia)

Lehendabiziko eguna: urriak 8

Izena emateko: irunabar@gmail.com, edo: Aitor Errazkin Vicente (685 72 75 39) eta Egoitz Zelaia Perez (669 36 65 89)

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN
info@ekarinmobiliaria.com
☎ +34 943 628 333
www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

Adinekoen Nazioarteko Eguna

Caser Residencial Anaka eta Betharram zentroetan zahartze aktiboaren aldeko apustua egiten dugu.

Adinekoa izatea aukera da. Gure edadetuek gizartean osoki parte hartzeko eskubidea dute. Horretarako, bizitza osasuntsua, parte-hartzailea eta segurua garatzeko aukerak indartuz, haien bizi kalitatea hobetzea dugu helburu.

Urteak betetzea jakintza, esperientzia eta baloreak pilatzea da. Zahartzaroa etapa bat gehiago da hazkunde pertsonalean. Ez ditu urteak bakarrik gehitzen.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser
RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169